

## TASUN ETA -KERI(A) ATZIZKIERI BURUZ

A. Zatarain

Urteak dira auzi ontaz zerbait idazteko asmotan nintzala. Aita Villasante'ren luburuak ("Palabras vascas compuestas y derivadas") egokiera ematen didanez'kero' lanari ekin diot atzenean.

Oraindaiño ontaz idatzi dudenek' bi atzizkiak antzeko-tzat artu ditude, -keri(a) atzizkiari zerbait gaiztoaren adirazgarri dala sakaturik... Aita Villasante'k dionez' (94a) bereizte ori Atarloa' gandik datorkigu, baiña Humboldt'ek ere igarri omen zion egoki eztana.

Azkue'k bere iztegi aundian onela dio:

— *-tasun* sufijo derivativo que se agrega a sustantivos y adjetivos para denotar cualidad abstracta, natural; y por lo mismo, aunque fuese defectuosa, no es imputable al individuo; a diferencia de *-keri*, que indica tendencia viciosa, inmoral.

Aita Villasante'k dion bezala' Axularr'en itz batzu ikustea aski da ori orrela eztana ezagutzeko:

"alfertasuna gauza gaixtoa, perilosa eta nork bereganik egotzteko dala (20); lehen gaixtatasunean bezala, orai ontasunean enplega gaitezin (46); nagitasunak dilijentziari (309); etsaitasuna (236); ingrát-tasun (305); bere likitstasunak eta lizuntasunak zituen (129) "—zituen"; iñola ere eziñ esan liteke *-tasun* oiek "cualidad natural... no imputable al hombre" diranik.

Azkue berriz ere:

— *-keri* Bc, Gc), *-keria* (c) sufijo derivativo que se une a sustantivos y adjetivos para denotar cualidad viciosa... Este sufijo, unido a los nombres de ciertos animales, forma nombres derivados que se aplican al hombre, denotando cualidades que le enaltecen poco. Astokeria (B, G, S) astakeria (B, BNc, R) bidez esateko: astokeri nere osaba apaiz zanari beste iñori eztiot entzun, eta apaiz-euskera dala esango nuke "burrada, majadería"; azerikeri (c,...) "astucia, cualidad de raposo"; mandokeri "majadería, cualidad de macho"; oilarkeria, "arrogancia, cualidad de gallo"; oillokeria "cobardía,

cualidad de gallina"; txakurkeri "perrería"; txarrikeri "cochinada"; urdekeri "porquería, cualidad de cerdo"; zapokeri "vileza, cualidad de sapo".

Lhande'ren iztegiak Azkue'renak ia itzez-itiz itzultzen ditu:

—tarzun, -tarzün S Var. de tasun.—tasun, -taxun L,N suff de noms et d'adjectifs.

Muxika'k: *-tasun* = cualidad; *-keri(a)* = defecto, cualidad viciosa.

Aita Villasante'k: Mientras *-keria* significa siempre cualidad viciosa o mala, *-tasun*, por el contrario, denota, pura y simplemente, cualidad, haciendo abstracción de si es buena o mala (123a).

Ona beraz iritzi oien aldeko zertan enaizen: *-tasun* "cualidad" edo izate-modu, izate-kera edo izate-molde bat dala garbi dago: argitasun = claridad; illuntasun = oscuridad; ontasun = bondad; gaiztotasun = maldad; berotasun = cualidad de caliente; aunditasun = grandeza, cualidad de ser grande; gogortasun = dureza; ttikitasun = pequeñez. Oietan denok bat gatoz. Baiña *-keri* nere ustez ezta izate-modua, baizik eta egite-modua: umekeria = ume bati dagokion egitea edo egitekera da; erokeria = ero bati dagokion egitea; tontakeria = tonto bati dagokiona; praillekeria = praille batek egingo luken zerbait, baiña egiten duanari eztagokiona. Azkue'k ere ia orixe esaten digu, baiña gero araua ematera koan, beste bidera jotzen du: "umetasun = niñez; umekeria (B,G) niñería. Mi padre escribió un poemita intitulado *Gizonkeria eta gizontasuna* "hombrada (llevada a cabo por niño o por mujer) y humanidad" (DVEF). Cuando alguien, en broma, se daba aires de personaje, su madre (la mía) solía decirle: gero... artzobispokeriarik ez niri egin gero" (MV, 64a).

Oietan aipatzen dituan erderazko itzak: burrada, majadería, cochinada eta abar eztira "cualidad", baizik eta "acción impropia de quien la hace y propia de quien se indica". Ona Real Academia'ren iztegi ttikiak zer zion:

*niñada* hecho o dicho impropio de la edad varonil, y semejante a lo que suelen ejecutar los niños que no tienen advertencia o reflexión.

*niñería* acción de niños o propia de ellos

*cochinada* = *cochinería*: porquería, suciedad. Acción indecorosa, baja, grosera.

Oietan garbi dago nik diodana. Baiña goazen aurrera:

*Necedad*: calidad de necio = Dicho o hecho necio.

*Tontedad, tontera, tontería*: Calidad de tonto = Dicho o hecho tonto.

Beraz gatzelaniz *tontotasun* eta *tontakeri* itzultzeko itz bakarra dude: izatekera eta egitekera ezitute itz bereiziz adirazten. Eta emen dago, didurinez' gure idazle oien naastearen iturria. Axularr'en liburuan naaste au garbi agertzen da: usoaren inozentzia eta ergelkeria (228); erhokeria eta itsutasuna (110); probetasuna, errumeskeria (20); bere llikitskeriak eta lizuntasunak zituen oiñetan (129); banalorietan, ponperietan, bonbazietan eta handirasunetan hurtzen du... (324); alferkeriatik edo nagitasunetik (26) gure denbora, hunerainoan alferkerian eta gaixtakerian gaizki enplegatu duguna, orai ontasunean doblatuz... (114).

Alaz guztiz ere' *egitea* adirazi nai duanean' eztu *-tasun* erabiltzen: dollorkeriaz prezatzen (66); erran baitzuten erhokeria handi bat (20); bere gaixtakeriakgatik (270); munduko hatskeria guztiak (378).

Didurinez' Axularr'ek itsusitzat daduka bi aldiz atzizki berbera erabiltzea, eta idazkeraren edertasuna aunditu naiez edertzalekeriak egiten ditu: erhokeria eta itsutasuna, likitskeriak eta lizuntasunak, alferkeriatik edo nagitasunetik.

Beste idazle batzu ere ikartu ditut atzizki oeri buruz: Duvoisin eta Oihanarte. Duvoisin'en Genesis osoa, eta Oihanarte'ren olerkiak. Ona zer ediren dudan:

- I, 26: et praesit piscibus maris = izan beza buruzagitasuna itsasoko arrainen gainean
- I, 28: et dominamini piscibus maris = eta nausitasuna har zazue itsasoko arrainen gainean
- VI, 5: Videns autem Deus quod multa malitia hominum esset in terra = Bainan Jainkoak ikhusirik handia zela lurrean gizonen maltzurkeria
- VI, 11: Corrupta est autem terra coram Dei, et repleta est iniquitate = Bainan Jainkoaren begietan galdua zen eta tzarkeriaz bethea

- VI, 13: repleta est terra iniquitate = lurra bethea da hekien tzarkeriaz
- XIII, 6 (XIV, 11; XV, 14; XXX, 29; XXXI, 9) substantia = ontasun
- XV, 16: completae sunt iniquitates Amorrhaeorum = ezen Amorrhearren gaixtakeriek ez dute orai arteo neurria bethe
- XVII, 13: in foedus aeternum = bethiko bat-tasunean
- XVIII, 19: et faciunt iudicium et justitiam = iduk dezaten zuzena eta zuzentasuna
- XX, 5: in simplicitate cordis et munditia manuum mearum = ene bihotzeko lañotasunean eta eskuetako garbitasunean (-tasun bi aldiz)
- XXI, 27: percusseruntque ambo foedus = eta biek bat-tasun egin zuten
- XXI, 30 (XXXI, 14): ut sint mihi in testimonium = izan dakizkidan lekhukotasuntzat
- XXV, 31 (32, 33, 34; XXVII, 36; XLIII, 33): Vende mihi primogenita tua = Sal dizadazu zure premutasuna
- XXVI, 1 (XLI, 30): post eam sterilitatem = agortasun haren ondotik
- XXVII, 28 (39): et de pinguedine terrae = eta lureko goritasunaz
- XXVII, 35: Venit germanus tuus fraudulenter = Amarruke-rian ethorri zait zure anaya
- XXX, 13: Hoc pro beatitudine mea = Hori ene dohatsutasunera-ko
- XXX, 29: possessio tua = zure ontasuna
- XXX, 33: Respondebitque mihi cras justitia mea = ene zuzen-tasanak ihardetsiko du enetzat
- XXXI, 32: apud quemcumque invenires deos tuos = Bainan ebasko jazartzen darotasunaz [itzulpen au oi ez beze-lakoa da]
- XXXI, 47: Tumulum Testis = Lekhukoaren munhoa; Accer-vum testimonii = Lekhukotasuneko meta
- XXXII, 10 (XLVII, 29): et veritate tua quam explevit servo tuo = zure zerbitzariari iduki diozun zintasuna

- XXXIII, 9: Habeo plurima, frater... = Anaya, ontasun asko badut [latiñez esan gabe utzitako itzaren itzulpena]
- XXXIV, 9: Responderunt filii Jacob Sichem et patri ejus in dolo = Ihardetsi zioten Sikemi eta bere aitari maltzurkeria gogoan zerabiltelarik
- XXXIX, 10: et ille recusabat stuprum = eta hau tzarkeriaz ukhoan zagoen
- XXXIX, 16: In argumentum ergoi fidei = Bere zintasunaren frogatzat
- XLI, 4: quarum mira species et habitudo corporum erat = zeinen itxura eta gizentasun ederresgarriak baitziren
- XLI, 7 (24): onmem priorem pulchritudinem = lehenbizikoen edertasun guzia
- XLI, 21: sed simili macie et squalore torpebunt = bainan bere mehetasun eta itsusitasun berean tontotuak zeuden
- XLI, 32: firmitatis indicium es = erakhusten dut segurtasun bat
- XLI, 52: in terra pauperitatis meae = ene behartasuneko lurrean
- XLIII, 23: dedit vobis thesauros in saccis vestris = eman derozkitzue aberastasunak zuen zakhuetan
- XLIV, 7: ut servi tui tantum flagiti commiserint = zure zerbitzariak egin balute bezala horrenbertzeko itsuskeria
- XLIV, 16: Deus invenit iniquitatem servorum tuorum = Jainkoak atzemandu zure zerbitzarien gaixtakeria
- XLV, 4: Ad quos ille clementis: Bainan hunek gozotasunekin erran zioten
- XLV, 20: quia omnes opes Aegypti vestre erant = zeren Egiptoko ontasun guziak zuenak baitira
- XLV, 23: ex omnibus divitiis Aegypti = Egiptoko ontasunetarik
- XLVII, 22: non sunt compulsi vendere possessiones suas = etziren beren ontasunen saltzera behartuak izan
- XLVIII, 22: quam tuli de manu Amorrhaeorum = Amorrhearren gainean irabazi dudana ontasuna
- XLIX, 5: vasa iniquitatis bellantia = gaixtakeriazko gerluntziak

XLIX, 21: et dans eloquia pulchritudinis = eta hitzari edertasun emaik

L, 17: et peccati atque malitiae quam exercerunt in te = zure gainean erabili dituzten gaixtakeria eta maltzurkeria nos quoque oramus ut... dimitas iniquitatem hunc = guk ere othoizten zaitugu tzarkeria hori barkha diezozuten

L, 21: et blande ac leniter est locutus = eta mintzatu zitzayoten ezteki eta emetasunean

Ikusten danez' Duvoisin'ek Axularr'ek baiño jatorrago jokutzen du arazo ontan: Gen. XX, 5 ikusi: bi aldiz *-tasun* jarzea etzaio itsusikeri iduritu.

Oihanarte'ren olerkietan ediren ditudanak' ona emen:

(Aiekak edo aieka-zenbakiak' Larresoro'ren liburukoak) ez ohoinkeri(a) egile (196a) ber(e) odolaz mundu honen teiarzunen osoki garbitzeko (198a) edertarzuna (148, 149, 164); ontarzuna (148, 169); onharzuna (151); gortarzuna (153, 213); gogortarzuna (164); jakitarzunez (169); gizatarzuna (198); bermetarzun (213); handitarzun (213).

Oiekin guztiekiñ' onako auek garbi dagode:

1.º *-tasun* izateari dagokiola: apaiztasuna = apaiz izatea; gaiztotasuna = gizto izatea

2.º *-keri(a)* egiteari dagokiola: apaizkeri bat egin du; gaiztakeri asko egin ditu

Beraz' iñola ere ontzat eman ezin ditekena "gaiztotasun bat egin du" eta "gaiztakeri aundiko gizona da" esatea da.

Aita Villasante'k garbi dio gauza egoki bat:

"La radical a que se aplica este sufijo preferentemente suele ser el adjetivo, pero esto no es ley absoluta".

Ontan zearo Aita Villasante'ren iritzikoa naiz, agian areago ere bai. Askotan itxuraz izen diranak izenondoko bezala erabiltzen baititugu olakoetan. Esate baterako: "gizontasun" esaten dugunean "orren aita oso gizona da" esatea, eta "orren aitak gizontasun aundia du" esatea, gauza bera da; beraz orr "gizon" itza izen-ondoko bezala darabilgu.

Orregatik' euskera jatorrari errespetoa dionari' oraiñ erabiltzen dituden itz askok miñ ematen diode. Esate baterako "indarkeria" parra-parra idazten dude oraiñ. Orr "indarr"

itza izena da, eta eziñ erabilli liteke izen-ondoko bezala; "gizon ori oso indarra da" eziñ esan liteke. Beraz obe litzake "violencia" esateko "indarketa" esatea, "indartasuna" ere eziñ esan bailiteke.

"Tortura" adirazteko noizpait "oiñazekeri" edo orrelako zerbait irakurri dudala uste dut. Ori ere gaizki dago, "gizon ori txit oiñazea da" eziñ esan baititeke. Azkue'k "oinhazkatu" (L), atormentar ematen digu: ¿Ethorri zara hunat ordu den baino lehen, gure oinhazkatzera? (Har. Matth, VIII-29). Onek esaera jatorra diduri. Ona latinezkoa Duvoisin'ek nola itzuli zuan:

Venisti huc ante tempus torquere nos? = hunat heldu othe zare ordua baino lehen guri oinhaze ematera?

Bestela ere adirazi liteke: "tortura" ordez "crueldad" = ankerkeria esanez. "Oñazkatze" itzak leen aipatu dudan "indarketa"ren ordez "indarkaketa" erabiltzera garamazkike, "indarka aritzea"

## ERASKIÑA

Lantxo au Aita Villasante'ri bidaliz'keroztik' Etxeberria' ren Eibar'ko euskeraren iztegia miratu dut. Ona ediren ditudanak:

Altasuna; altsutasuna, argitasuna; arintasuna; astuntasuna

balixotasuna; biribiltasuna; bizkortasuna; bustitasuna; erregetasuna; ezbardintasuna; ezereztasuna; ezillbiartasuna;

gogortasuna; ituntasuna; ixiltasuna; jabetasuna; jantzitasuna;

lastertasuna; latztasuna; lixotasuna; luzetasuna; miñtasuna;

nasaittasuna; nausiñtasuna (primogenitura); pixotasuna; sakontasuna; ugaritasuna; zabaltasuna; zintzotasuna; zuzentasuna.

Aittukerixia (pedantería); bildurtikerixia; faltsukerixia; ker-tenkerixia; lizunkerixia; motxallekerixia; mozolokerixia eta bi atzizkiak ditudenok:

gizontasuna, gizonkerixia (hombría, humanidad/hombrada)

loitasuna, lokerixia (suciedad, mancha/porquería, obscenidad)

nagitasuna, nagikerixia (pereza/dejadedez, abandono)

okertasuna, okerkerixia (malicia/travesura)

saskartasuna, saskarkerixia (torpeza, brutalidad/t..., b...)

umetasuna, umekerixia (infancia = umezaro/niñería)

zorotasuna, zorakerixia (locura/locura, cosa propia de un loco)

Guzti oietan argi dago leen esandako guztia; *-tasun'*en aurretik izen bakar bat agertzen zaigu: *al*, eta enuke esango dalako "altasun" itz ori euskeraz erdizka besterik eztakianen batek sortua eztanik, ezpaitu jatorr-usairik.

*-keria bat* ala *-keri bat* ote danari buruz' eztut zigurtasun aundirik; bi gauza bakarrik aipatuko ditut: Azkue'ren eta Lhande'ren iztegiek biak aipatzen ditudela gipuzkeraz kanpo ere; eta Coca-Cola'ren sariketa batean' bizkaitar batek "por-kerixak eiten daurez" idatzi zuala (Ikusi Villasante, aip. lib., 92a).